

ortzadar

larunbata, 2017ko ekainaren 24a. 504. zenbakia

deia.com/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak

TIO TERONEN SEMEAK

Euskal dantza tradizionar-
lak irauli ditu lagun
kuadrilla honek 'Freshcool'
ikuskitunarekin, umorea
eta parranda uztartuz

-- 4-5. orrialdeak --



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

saski-naski



KRITIKA HASIER REKONDO

Maitasuna, azken finean

TITULUA: 'POZ ALDREBESA'

EGILEA: JUANJO OLASAGARRE

ARGIALETXEA: SUSA, 2017

ESANGO nuke urtero maitasunera itzuliz gero bakarrik hitz egin daitekeela fidelitasunaz, denboralditik kanpo, itzuliko ote dizuten jakiteko inongo bermerik gabe", esan zigun J. Brodsky poeta errusiarrak, haren *Fondamenta degli incurabili* (1989) gogoangarrian.

Juanjo Olasagarrek fidelitasuna edota fidelitasun eza transzenditzen dituen maitasun istorio sakona dakar. Pasoliniren eszena bat lirudikeen Bilbo ahaztu bateko Artxandako aparkaleku likits batean sorturiko harreman sexual bat abiapuntu epifanikoa izanik, Axik eta Josebak osaturiko bikote gay baten 19 urteko maitasunaren sorrera, bilakaera eta gainbeheraren berri dakarkigu Olasagarriren azken nobelak. Memoriak eta gaixotasunak osatu bikoari esker, hizpide ugari proposatzen ditu *Poz aldrebesa* lanean: sexua, gayen mugimendu politikoa, poesia, zaintza; finean, iruntzietara eratutako bizitzaren kaleidoskopioan eratu unibertso zirraragarri eta dekadentea, estilo gardena eta proustiarra tartekatzu, oroimenak, lexikoak eta sintaxiak bat egiten baitute poz horretan, beherakadak beherakada.

Gaur egun erabat gutxietsia dago maitasuna (urliak kapitalismoarekin lotu baitu edo desagertzeaz dela ziurtatu du sandiak zientziari leku uzteko), oso labainkorra izan litekeela diosku Olasagarrek, nobelari izena emango dion aldrebes eremu horrekin lotu xedez. "Badaki aurrera poza izango duela, ez zorientasuna... Heteroendako udalekua da zorientasuna. Poza bakarrik. Poza. Aldrebesa, bai, baina poza, azken finean".

Heteroen eta homoen arteko berezitasunean eraikitzen du egileak gaytasunaren aldarria, besteak beste; bada, esanguratsua da 80. hamarkadan EGHAM-ek eratutako lehen *Gayakanpadaren* karira idatzitako kapitulu ironiko bezain politikoa, non gay, *queer* edo mariken bakoitzak bere berezitasunekin, mugimendua nazio mugimenduez bereizteko beharra azpimarratzen baiten. Hala ere, heterosexual guztiak zaku berean sartzeak gay guztiak beste batean sartzea bezalako litzateke: nobelak erakutsiko digu kolektibo bakoitzaren ezaugarriak aldarrikatzea bezain inportantea dela bakoitzaren prozesua eta identitatea oroimenaren bidez zizelkatzea. "Axi, alegia, nahi-



Axik eta Josebak osaturiko bikote gay baten 19 urteko maitasunaren sorrera, bilakaera eta gainbeheraren berri dakarkigu Olasagarriren azken nobelak

koa izan baitu istripua arte, eta hemendik aurrera ere bai; heterosexual askori arraroa egiten zaio sexua eta maitasuna bereiztea, berari marika den aldetik, erraza, nahiz eta onartu behar duen Axiri ez zitzaiola horren erraza egiten, Axik joera izan duela larrua jo duenekin beste sentimendu batzuk sortzeko...". Bestalde, Josebaren gogorapen bidez hitz egiten duen Txatok gay izatearen muina emango digu, Olasagarrek beti aukeratu du, bere pertsonaien bizitza ezohizkoekin bat, ikuspunturik askatzailena, horrek sufrendua ondorioztatu lezakeen arren.

ETBko kazetari Axi izpiritua askearen irudia da, Boletin Ofizialaren itzultzaile Joseba, bestalde, Andrew Motion poeta laudatua euskarara ekarriko duena, menpeko maitasunaren isla. Biek ala biek gaytasuna bizitzeko bestelako bideak ibiliko dituzte, denboran eta memorian iraungo duten maitasuna dute partekatuko, harro partekatu ere.

Txibien sasoia hasi besterik ez da egin, ustekabe handia litzateke Olasagarriren nobelak urteko sari gorenarekin bat ez jasotzea.

SALDUENAK

Fikzioa

1. Elkarrekin esnatzeko ordua

Kirmen Uribe. Susa.

2. Nola heldu naiz ni...

Kattalin Miner. Elkar.

3. Patagoniara Hazpurnen barrena

Kepa Altonaga. Pamiela.

4. Gelditu zaitzete...

Ana Malagon. Elkar.

5. Amamaren grafitiak

Toti Martinez de Lezea. Erein.

Ez Fikzioa

1. Berriak jaiotzen

Jon Maia Soria. Lanku.

2. King Kong Teoria

Virginie Despentes. Elkar.

3. Pentsamendu heterozuzena

Monique Wittig. Susa.

4. Filosofiaren defentsak

Iñigo Martinez (koord). Erein.

5. Gerrak ez du emakume aurpegiarik

S. Aleksievtx. Elkar (J. Zaitegi Saria).

ITURRIA: Elkar.

ERAKUSLEIHOA

BERTSOLARITZA

'Berriak jaiotzen'

Jon Maia Soria. Ilus: Unai Iturriaga. 224 orr. 18 euro.

Bertsoaren aro berriaz

80. eta 90. hamarkadak bertsolariaren eraberritze sakon baten hasiera izan ziren: bertso eskoletako lehen bertsolariak plazetara iristen hasi ziren, bertsoa erdal eremuetan sartzen, espazio berrietara, garaikideak ziren beste kultur adierazpen batzuekin harreman artistikoak sortu ziren eta horrela, gaur egungo bertsolariaren argazkira iritsi arteko eboluzio bati hasiera eman zitzaion. Jon Maia bertsolariak berak lehenengo pertsona eta lehenengo lerroan bizi izan zuen garai haren argazki pertsonala egin du lan honetan. Lehen pertsona idatzia, bertsolariarekiko interesa gaintzen duen entsegu autobiografikoa osatu du egileak.



LITERATURA

'Baina ez luketehan egon behar'

Asier Osinalde Vidal. Erein. 160 orr. 15 euro.

Bizitza josten duten hariak

Bakarrik jaiotzen eta bakarrik hiltzen gara. Bitartean, hari ikusezin baten gainean orekari eusten saiatzen gara eta argazkiak ateratzen dizkigute. Gu argazkitakoak izaten saiatzen gara, baina ez gara. Gu argazkiaren atzean dagoena gara, irudiarren ertzetatik kanpo dagoena, eta bizitza ez da lerro zuzen bat, ibili ahala etengabe josten eta askatzen ari garen armiarma-sarea baizik. Amaraun batean harrapatutako pertsonaiei buruz idatzi du bere lehen liburua Asier Osinaldek (Donostia, 1975), beren beldur eta frustrazioekin, beren amets eta esperantzeekin bizitzaren hariak korapilatzen diharduten pertsonekin.



ZALDI EROA



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

dantza

Ez dadila festa amaitu

Tio Teronen Semeak dantza taldeak herri guztietako plazak zapaldu ditu, 'Freshcool' emanaldiarekin sekulako giroa sortuz. 2015eko maiatzean Donostian aurkeztu zuten proposamen original eta berritzailea, eta aurten ehungarren saiora iritsiko dira; ez dago dantzari kuadrilla honen oinak gelditzerik

 ANE URRUTIKOETXEA

ORAINDIK Tio Teronen Semeen zuzeneko ikusi ez duenak ziur aski Interneten milaka ikustaldi izan dituzten bideoetako batean ezagutu du dantzari talde honen proposamen arrakastatsua. Euskal dantza tradizioaletik datorren lagun kuadrillak osatzen du Tio Teronen Semeak, eta *Freshcool* emanaldia 2015eko maiatzean Donostiako Olatu Talkan urduritasun handiarekin aurkeztu zutenetik, ez ditu inork gelditu. Aurten ehungarren emanaldira iritsiko dira, eta uda hasiera honetan agenda erabat bete dute dagoeneko.

Hogei bat dantzari eta lau musikari osatzen dute dantza kuadrilla bitxi hau. Aritz Salamanka taldeko dantzari eta zuzendariaren esanetan, Tio Teronen Semeak kuadrilla baten moduan funtzionatzen dute, bai taula gainean zein fokoen atzean: "Denok dantzan ezagutu dugu elkar, eta ordu asko igaro ditugu batera. Horrela sortu zen *Freshcool*-en ideia, eta geroztik, dantzaren eta musikaren bitartez kuadrilla baten istorioa kontatu diogu jendeari; lagun talde baten moduan egiten dugu lan, proiektua kudeatuz eta erabakiak denon artean hartuz".

ERROTazio SISTEMA Dantzari eta musikari guztiak proiektuan aktiboki parte hartzeaz gain, taldearen ize-nean hitz egitea gustuko dute. Emanaldia behin baino gehiagotan ikusita, segituan sumatu daiteke ez daudela bi saio berdin, eta ez direla beti taldekide berdinak igotzen eszenatokira. Salamankaren arabera, errelebo sistema bati esker dute horrenbeste emanaldi eskaintzeko indarra. "Plazan hamabost dantzari ibili ohi gara, baina askotan errotazio sistema bati esker irauten dugu, batez ere orain, uztailla-abuztua aldera. Aste batean zazpi emanaldi jarraian izatera iristen gara, eta egun horietan bizpahiru dantzari txandakatzen ibiltzen dira; ez ditugu ordezko moduan hartzen, guztiok taldekideak garela, eta hori da azkenean arrakastaren gakoa, maite dugun zerbaitekin ondo pasatzen gabiltzan lagunak garela".

Rollo ona, lagun giroa, parranda eta umorea segituan antzematen dira *Freshcool* emanaldian. Herrietako plazak dira beren eszenatokiak, eta noiz edo noiz leku itxiren batean ere dantzatzen duten arren, kalean ezin gusturago sentitzen dira. "Guzti honen helburu nagusia guretzat ondo pasatzea da, eta horregatik, herriko plazan emanaldia hasi bezain laster gure arteko pikeak eta txantxak tartekatzen ditugu dantzarekin. Publikoarekin tratatu zuzena izatea gustatzen zaigu, haiek ere espektakuluaren parte bilakatu eta ondo pasatzea. Guk giro paregabe egiten dugu hau, eta emanaldia ikustera datozenek segituan nabaritzen dute hori".

TRADIZIO DIBERTIGARRIA Tio Teronen Semeak euskal dantza tradizionala dute beren ikuskizunaren oinarritzat, baina hortik aurrerako guztia elkarrekin igarotako orduen fruitu da. Herriko festetara parrandan ateratzen den edozein kuadrillaren istorioa kontatzen dute, eta umorez *Agurra*, *basoaren dantza* eta bestelako dantza tradizionalak parodiatzen

dituzte, txikitero kuadrilla bat imitatuz. **Musika** k garrantzi handia dauka *Freshcool*-en, eta horregatik, zuzeneko musikarekin lan egiten dute Tio Teronen Semeak. Dantzen pausoetara moldatutako musika erabiltzen dute, eta musikariak dantzariak bezain taldekide direnez, erabat pertsonalizatutako saioa egiten dute. "Musikariak ikuskizunaren parte dira, dantzariak bezala. Gainera, haiek ere egiten dute dantza zenbaitetan". Musikariak jotzen ez dutenean, baina, bestelako doinu parranderoak ere dantzatzen dituzte Tio Teronen Semeak. "Oraindik ez gara *Despacito* abestia-

rekin saiatu, estilo hori ez dugu landu, baina nork daki!", dio Salamankak.

Bertsokak botatzen ere trebeak dira, eta publikoak aktiboki parte hartzen duenean, kuadrillako kideren baten mikrofono hartu eta inprobisazioari tartea eskaintzen diete. Behin edo behin, publikoatik ere baten bat animatu da emanaldiarekin bat egitera: "Espontaneo asko ateratzen dira gurekin parte hartzera; istorioa publikoari estrapolatzen diogu; azken finean umorezko emanaldia denez, jendeak oso hurbil sentitzen du, eta denok pasatzen dugu primeran. Guretzat, publikoarekin partekatzen ditugun une magiko horiek altxor txikiak dira, eta horregatik saiatzen gara emanaldi bakoitzari toke berezi bat ematen".

PLAZAKO XARMA Publikoa zirikatuz, probokatuz eta barre algarak sorraraziz, Euskal Herriko zein kanpoko plaza nagusien konkistatu dituzte. Berdin du hiriburu batetik edo herri txiki batetik deitzen badiete; Tio Teronen Semeak, beti %100 ematen dute beren emanaldietako bakoitzean. "Asko gustatzen zaigu emanaldi bakoitza berezia eta bakarra izatea; espektakulua kalean egiteko aproposa da, kanpoko elementuak lagungarri zaizkigulako, eta, gainera, non kontatu kuadrilla baten istorioa, herriko plazan baino hobeto?", diote. Herri bakoitzeko eremu naturalera egokitzen saiatzen dira, eta hala, publikoarekin harreman estua garatzen dute. "Noiz edo noiz, eguraldi txarraren ondorioz, frontoi bat bezalako eremu itxi batean dantzatzen dugu, baina ez dugu aretoetan sartu nahi. Plazako xarma ez dugu galdu nahi", diote aho batez.

Azken emanaldia Gasteizen eman zuten, eta beroak ez zituen ikusleak uxatu: "Bi emanaldi egin genituen, eta lehenengoan kristoren beroa egiten zuen arren, 19:30etako emanaldian plaza gainezka aurkitu genuen, gure zain. Hori da plazek duten abantaila: paseatzen zabilta, eta bat-batean zerbait gertatzen ari dela ikusten duzu, interesa pizten du". Salamankaren arabera, Gasteizko emanaldia primeran ateraz, eta hiriburuan bizitako esperientzia asimila-



 Tio Teronen Semeak, Kaldearte jaialdiaren baitan

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

dantza



tzen dabilta oraindik: “Sekulakoa izan zen, ikusgarria, jendea izugarri inplikatu zen gurekin”.

AUTOKUDEAKETA Maila horretako arrakasta kudeatzea ez da erraza, baina dantzari taldeak argi dauka ez dutela kanpotik inor etortzea nahi, eta autogestioan oinarritutako sistema baten bitartez antolatzen dira, taldeki-guztien iritzia kontuan hartuta eta denon artean erabakiak hartuz. “Bihar manager bat hurbildu eta New Yorkera eramane nahi gaituela esango baligu, baietz esango genioke, baina proiektuaz gu arduratzen garela argi utzita. Ez dugu pasio hau lanbide bilakatzeko asmorik, eta kanpoko norbait etorri eta egin behar duguna esaten hasterik ere ez dugu nahi. Une gozo honetaz disfrutatzen gabilta, eta oso gustura gaude guzti hau kudeatzen, guk kontrolatzen dugulako noiz, zer, nola eta zergatik egiten dugun hau guztia. Laguntza, ideiak, eta parte hartzeko prest dauden eskuak ongi etorriak dira, baina argi dugu gu garelako gure manager onenak”.

Tio Teronen Semeek euskal dantza tradizionala dute oinarri; hortik aurrerakoa elkarrekin emandako orduen emaitza da

Autogestioak buruhausteren bat ekarri izan die agenda antolatzeko orduan, horrenbeste eskari kudeatzea ez baita erraza. Taldea *Freshcool* ezagutarazten zentratu den arren, horrenbeste eskari jaso dituztenez, hainbat ezezko ere eman behar izan dituzte. Aurten ez dira gelditu, eta urrira arte 40 bat emanaldi gelditzen zaizkie oraindik emateko.

Euskal Herriko plazak bisitatzeaz gain, uda honetan Mataroko arte eszenikoen jaialdian, Huescan, Levanten eta beste hainbat herritan izango dira Tio Teronen Semeak. Euskal Herrian hainbat plaza bisitatuko dituzte berriz, eta txoko berrietara ere iritsiko dira, esate baterako, Iparraldera: “Plaza berriak beti dira ongi etorriak, eta gure emanaldiak arrakasta izan duten tokietara bueltatzea gustutzen zaigun arren, asko disfrutatzen dugu lehen aldiz toki batera iristen garenean”.

Dagoeneko badira behin baino gehiagotan bisitatu dituzten hiriak, eta proiektu berriren bat dutenerako badute interesaturik ere. “Etorkizunean gurekin kontatzen dutela entzutea oso polita da, eta badakigu asko direla proiektu berriren bat ateratzen dugunean interesa duten herriak. Dena den, plaza batera beste behin joaten garenean, beti saiatzen gara marko ezberdinean izatea, zerbait berria eta freskoa eskaintzen jarraitzeko. Tokia aldatuz, inguru edo testuinguru ezberdin bat topatuz, emanaldiari buelta bat ematea gustutzen zaigu”. Eta espektakulua amaitzen denean, zer? Lagun taldeak dantzan jarraitzen du, Salaman-karen esanetan: “Saio bakoitzaren amaieran, guztiok elkarrekin afaldu edota afari-poteotxo bat egin eta parrandara joaten gara, dantza eta festarekin jarraitzeko prest!”.

Freshcool ikuskizuna urrira arte eskainiko du dantzari taldeak, eta ehun emanalditara iriste espero dute. Ondoren etorriko dena ez daukate batere argi, baina Tio Teronen Semeak hasi dira dagoeneko 2018ra begira. Badakite orain arte bizitakoa “ametsa” izan dela, eta dena ondo badoa, zerbait berria egitera animatuko dira.





 ANE IRAZABAL

BERE izena ez da oso eza-guna, baina munduko tabernarik famatuena da agian. Bar Vitellik mende bat bete du eta ireki zuten garaiko estilo bera dauka. Landa- rez bateriko terraza batek ongie-torria egiten dio bisitariari, eta barruan Giannirekin topo egin dugu. Gazteak hamar urte dar-matza zerbitzari lanetan. Taber-na berea balitz bezala sentitzen du: “Turistak egunero iristen dira zerbait edatera eta Michael Cor-leone eseri zen aulki berean esertzera”, kontatu du.

Askok uste dute XX. mendeko biblia zinematografikoa, hau da, Francis Ford Coppolaren *Il Padrino* filma, Siziliako Corleone hirian grabatu zela. Ez da egia, ordea. Italiari erreferentzia egiten dioten filmaren pasarterik gehienak Savoca herrian grabatu ziren. Pelikula ikustean arreta jartzea besterik ez dago Vitelli taberna aurkitzeko. Michael Corleonek (Al Pacinok) bertako jabeari eskatu zion bere alaba Apollonia Vitelli-ekin ezkontzeko. Eta handik metro gutxira, Savocako elizan, Michaelen eta Apolloniaren arteko ezkontza grabatu zen.


SORPRESA ATSEGINA Ford Coppollak kasualitatez deskubritu zuen Savoca. *Il Padrino*ko lantaldeak Taorminan hartu zuen ostatu eta eszenatokiak aurkitzeko ondoko herriak bisitatze-ari ekin zion. Zuzendariaren helburua zen Corleonen grabatzea, Don Vito patriarkaren jaiote-rrian, baina Siziliako agintari-ek gomendatu zioten bertara ez hurbiltzeko. Mafiaren esku-hartzea oso handia zen eta arazoak izan zitzaizketen. Ford Coppollak, etsi-ta, laguntza eskatu zion Taormi-nako noble bati eta honek esan zion Savocara joateko. Zuzen-daria txundituta geratu zen herri-aren edertasunarekin.

Savoca Taorminatik 20 kilome-tro iparraldera dago eta bertara iristeko sigi-saga egiten du bideak. Olibondoan artetik, mendixkaren magalean, eliza nagusia ikusten da. Antzinako gotor-lekuak eremu guztia kontrola-tzen du.

‘Il Padrino’-ren arrastoa jarraitzen

Zinemazaleen ezinbesteko geltokia da Italiako **Savoca**. Siziliako herrixka txikia eszenatoki bat da bere horretan. Zinema amasten da bertako txoko guztietan



 ‘Il Padrino’ filmaren pasarte asko grabatu ziren Savocan, lerroan gainekoa, kasu. Ordutik, Bar Vitelli zinemazaleen helmuga da. A.I.



Vitelli tabernaren barruan *Il Padrino* filmeko pasarte eta argazki anitz aurki daitezke. “Filma grabatu zuten bitartean, Ford Coppolak eta Al Pacinok eguneroko harremana izan zuten Savocako herritarrekin. “Oso ohikoak ziren zuzendariaren eta aktorearen hizketaldiak gure aitona-amonekin. Hemengo ohi-turak hurbiletik ezagutu nahi zituzten”, azaldu du Giannik. Eta irribarrez erantsi du: “Baina beti itzultzaile bat behar zuten. Ford Coppola eta Al Pacino italiar jatorrikoak dira, baina ez dute italieraz hitz egiten. Ezta gure aitona-amonek ere. Garai hartan siziliarrez mintzatzen ziren guz-tiak”, kontatu du.

ZINEMAREN IRAULTZA Gianni- ren arabera, amerikarren iritsie- rak iraultza bat eragin zuen Savocako biztanleen eguneroko- tasun lasaian. 1970. urtea zen eta Siziliako herrixka askotan XX. mende hasieran bezala bizi ziren. “Ordura arte ikusi gien- uen amerikar bakarrak II. Mun- du Gerrako soldaduak ziren”, kontatu digu gazteak. “Hollywoodeko izar handiak bideokamera handiekin, gara- biekin eta fokuekin agertu ziren herrian. Hankaz gora jarri zuten Savocako biztanleen eguneroko- tasuna. Herritar gehienek figu- rante gisa agertu nahi zuten fil- mean, gero senitartekoei erakus- teko”, kontatu du.

Izan ere, garai hartan Siziliako familia guztietan zegoen Ameri- kako Estatu Batuetara alde egin- dako kideren bat. Miseriak jota, XIX. mendearen amaieratik XX. mende erdialdera bitartean 30 milioi italiarrek emigratu zuten Ameriketara. Hori da, hain zuzen, *Il Padrino*ko maisuki kon- tatzen duena. “Iragan mende hasieran Sizilia ez zen helmuga turistikoa eta estatuak ahaztuta- ko zonalde asko *Cosa Nostra* mafia erakundearen eskuetan zeuden”, azaldu du Giannik. Fil- mean, halere, ondo baino hobeto azaltzen da mafia siziliarra- ren tentakuluak indartsuagoak zirela AEBetan Sizilian bertan baino.

Giannik Savocako zinemaren museoan lan egiten du tarte libreetan. Gazteari asko gusta- tzen zaio atzeritarrei herriaren nondik norakoak azaltzea eta poztu egiten da alde zaharreko kale estuetan bisitariak ikusten dituenean: “Savoca ez da udale- rri turistikoa, baina, aldi berean, zinemazale askoren bisita jaso- tzen du”.

Bada, Michael Corleoneren aul- kian esertzeak ez du preziorik.

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

Begirada

Joakin Akarregi Markina-Xemein, 1979

Ikus: www.joakargazki.wordpress.com | www.instagram.com/joaka_pic



Datorren astean...

Jon Herranz

h! Herri hizkeran jantzia? Sartu eta egin aproba

herrizki aplikazioa

Garapena: **artez** AKTING... **Banbestek:**

url: android: iOS: